

1. HEZKUNTZA SAILAK IGEEI BANATZEN DIZKIEN DIRU LAGUNTZAK. 2013. URTEA

Irailaren 9an eman zuten argitara, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, IGEEK 2013an egingo dituzten jardueretarako diru laguntzen deialdiaren agindua. Eskariak aurkezteko epea urriaren 10ean amaituko da, eta dokumentazioa bizkorrago aurkezteko eta balizko gorabeherak garaiz konpondu ahal izateko, IGEEi gomendatzen diegu urriaren 2a baino lehen bidal dezatela beren eskaria BAIKARARA. Aurten eskaera egiteko orriak aldatu egin dira. Horregatik eskaera orriak betetzerakoan arreta berezia eskatzen dizuegu

Eusko Jaurlaritzak aurrekontuetan egindako murrizketak direla eta, 2013an %30 murriztuko dira diru laguntzak: hala, 720.000 euro banatu zituzten 2012n, eta 500.000 ezarriko dituzte 2013rako. Horrek esan nahi du are gehiago jaitsiko dela IGEEen diru sarreraren zenbatekoa.

Emandako diru-laguntzaren ordainketa bi zatitan egingo da. Lehenengoa, diru laguntzaren %75, EHAA-n argitaratu ondoren, eta gainerako %25 "EGIAZTAPEN-KONTU ERRAZTUA" orriarekin batera egindako gastuen faktura eta ordainagiri orijinalak aurkeztekoan egingo da. Dokumentazio hau 2014ko urtarrilak 15a baino lehenago aurkeztu beharko da. Ematen diren epeetan diru-laguntza onartu ezean edo emandako diru-laguntza baino gutxiago justifikatzeak diru laguntza galtzea suposatuko du. "EGIAZTAPEN-KONTU ERRAZTUA" orria abendu bukaeran jasoko duzue, edo orain nahi izanez gero BAIKARAREN web orritik deskargatu (www.baikara.org)

Aurreko ikasturtean bezala, Federazioak azaroan egingo duen Batzar Orokorrean, IGEEi laguntza modura diru kopuru bat banatzeko aukera aztertuko da. Diru kopuru horren zenbatekoa ekitaldi ekonomikoaren behin betiko itxierako datuen arabera izango da, baina 9.000 € inguru banatzeko aukera aurreikusten da. Federazioko Zuzendaritza Batzordea, nolana ere, aztertzen ari da aurreko ikasturtean aplikatutako irizpideak aldatzea, jasotako diru laguntzaren gutxieneko kopurua kontuan hartu baitzen orduan. Ikasturte honetarako proposamenaren arabera, IGEEK berek egindako eskarien arabera eman litezke laguntza horiek; izan ere, a priori, beren premia ekonomikoek ez dute zertan izan antolatutako jardueretan eragin bera, nahiz eta IGE guztiei jaitsi dieten diru laguntzaren zenbatekoa.

2. BAIKARA FEDERAZIOAREN ZERBITZUAK

BAIKARA FEDERAZIOAK bere bazkide diren IGEEi eskaintzen dizkien zerbitzuak gogorarazi dira; hain zuzen, bileran banatutako orrietan adierazita daude. Era berean, gogorarazi da Federazioaren orrialdean ere (www.baikara.org) informazio ugari dagoela, zerbitzuei nahiz IGEEen intereseko beste hainbat gairi buruzkoa.

3. LOMCERi BURUZ AZKEN BERRIAK

3.1. LOMCERen gaur egungo egoera

LOMCEren parlamentuko izapideei dagokienez, aipatu beharra dago aurreko uztailan egin zela Diputatuen Kongresuko Hezkuntza Batzordean legeari buruzko eztabaida, eta PPren gehiengoz baztertu zirela Diputatuen Kongresuko hamaika parlamentu taldeetako 10ek aurkeztutako osoko zuzenketak, legea atzera botatzeko eskatzen zutenak. Hori ikusirik, oposizioko talde guztiek, UPyD, UPN eta Foro de Asturias alderdiek izan ezik, uztailaren 17an dokumentu bat adostu zuten, hurrengo legealdian LOMCE indargabetzeko konpromisoa jasotzen duena. Gaur egun, hauxe da akordio horrek dioena:

“Idatzi hau sinatzen duten parlamentu taldeek adostu dute hurrengo legealdiko lehenengo bilkura aldian LOMCE legea indargabetzea, eta haren aplikazioa berehalakoan etetea, eta hezkuntza komunitatean eta parlamentuan ahalik eta adostasun zabalena izango duen lege bat sortzeko lan egingo dute”.

Gaur egun, parlamentu taldeek aurkeztutako zuzenketa partzialen eztabaida egiten ari dira Diputatuen Kongresuan, baina ez da aurreikusten zuzenketarik adosteko aukera, eta, hortaz, udazkenean onartuko dute LOMCE legea, eta 2014-2015 ikasturtean hasiko dira haren ezarpena.

3.2. LOMCEren kontrako mobilizazioak Euskadin

Otsailean hezkuntza komunitatearen gehiengoak lortutako akordioari jarraituz, eta ikastetxeetan egindako informazio kanpainaren ondoren (hitzaldiak, kartelak...), 2013-2014 ikasturteko lehenengo hiruhilabetean mobilizazioak antolatzeke aukera planteatu zen ikasturtea amaitu aurretik.

Ekainaren 4an eta 5ean bi bilera egin ziren Andoainen, mobilizazio horiek zehazteko, eta hitzartu zen manifestazioa antolatzea urriaren 12rako. Bilera horietan onartutako testuak, ordea, ez zuen lortu otsailekoaren adostasun maila bera, eta hezkuntzako eragile batzuek deialdi horretatik kanpo gelditzea erabaki genuen (EHIGEk besteak beste).

Aurrerago, ekainaren 18an, prentsurreko bat egin zen Bilbon, urriaren 12ko manifestazioaren berri emateko. Prentsurrekoan adierazitakoaren arabera, manifestazioaren lema “Euskal Herrian Gure Hizkuntza eraiki! Lomceri ez! Inposaketei ez!” zen, eta honako hauek ziren antolatzaileak: Ikastolen Elkarte, Sortzen-Ikasbatuaz, Ikasle Abertzaleak, Hik Hasi (otsaileko akordioa sinatu zuten 19 eragileetatik 4), ELA, LAB eta STEE-EILAS sindikatuak, UEU eta UEU (Udako Euskal Unibertsitatea) eta NIZE (Nafarroako D ereduko Zuzendarien Elkarte) erakundeak.

EHIGEK, BIHE eta SAREAN elkarteek bezala, mobilizazio hori ez babesteko honako arrazoi hau eman du: akordioak atzerapausoa dakarrela otsaileko akordioaren aldean. Testuaren sinatzaileek eta manifestazioaren antolatzaileek argi eta garbi adierazi dute manifestazioaren helburua ez dela soilik LOMCEaren kontrako jarrera adieraztea, baizik eta lehen urratsa ematea euskal hezkuntza sistema propiora eramango gaituen bideari ekiteko estrategian. EHIGEK, bat etorri arren hezkuntza sistema propioa eraikitzearen aldeko aldarrikapenarekin, uste du une honetan lehentasuna LOMCEren kontrako jarrera bateratuari eustea dela, otsaileko adostasunari heltzen saiatzea. Ildo horretatik, elkarrizketak egin ditugu beste hezkuntza eragile batzuekin (Ikastolen Elkarte, Kristau Eskola...) elkarrekin aztertzeke zer neurri har daitezkeen Euskadin, erakundeei nahiz gizarteari dagokienez, gure komunitatean LOMCE legea ezar ez dezaten.

Ekainaren 24an EHIGEren Zuzendaritza Batzordeak ezohiko bilera egin zuen Bilbon, gai zerrendan aztergai bakarra zuela: manifestazio deialdiarekiko gure estrategia zehaztea. Bilera horretan erabaki hauek hartu ziren:

- Ahalegintzea ahalik eta adostasun zabalena izango duen espazio bat berregituratzen, eta eragile gehiago erakartzea, ez murriztea, LOMCEren kontrako mobilizazio masibo batera

- Horretarako elkarrizketak egiten saiatzea akordioaren sinatzaileekin (ekainaren 18ko akordioa sinatu zutenekin nahiz sinatu ez zutenekin), ekimen batasunari eusteko aukera aztertzearren.

Erabaki horren ildotik, uztailean eta abuztu amaieran EHIGeko lehendakari eta koordinatzaileak, BIHE eta SAREAN elkarteetako ordezkariekin batera, bilerak egin ditu hainbat hezkuntza eragilerekin (ELA, STEE, CCOO, Ikastolen Elkarte, Kristau Eskola...). Bilera horien emaitza gisa, konpromiso bat hartu zen, testu berri bat adosten saiatzeko, urriaren 12ko mobilizaziorako deia euskal hezkuntza eragileen gehiengoak egin dezan. Hala, irailaren 9an eta 13an bi bilera egin ziren ekaineko akordioaren sinatzaileen eta EHIGEren artean, testu berri bat adosteko xedearekin. Bilera luzeak izan ziren, baina, azkenik, lortu

zen testua adostea; hala, urriaren 12an manifestazioa egiteko deialdiari eutsiko diote. Bilbon izango da, 17.30ean. LOMCE EZ! EUSKAL HERRIAN, GURE HEZKUNTZA ERAIKI! izango da manifestazioaren lema, eta hauek antolatzaileak: EHIGE, BIHE, SAREAN, Ikastolen Elkarte, Sortzen Ikasbatuaz, ELA, LAB, STEE-EILAS, Ikasle Abertzaleak, NIZE, HIK Hasi eta UEU. Datorren ostiralean, irailak 27, prentsurrekoa egingo da, eta ordura arteko epea izango da beste hezkuntza eragile batzuen atxikimenduak jasotzeko. Ostiraletik aurrera, berriz, nornahik bat egin ahal izango du deialdiarekin.

3.3. Estatuko mobilizazioak

Estatuko mobilizazioei dagokienez, "Plataforma Estatal por la Escuela Pública" plataformak (CEAPA, CCOO, FETE-UGT, CGT, STES-i, MRPs, Sindicato de Estudiantes eta Federación de asociaciones de estudiantes eragileek osatua) LOMCEn kontrako eta hezkuntza arloko murrizketen kontrako mobilizazio egutegi bat aurkeztu du 2013-2014 ikasturteko lehen hiruhilekorako. Hona hemen egutegia:

- **Irailaren 23tik urriaren 13ra: Herritarren galdeketa**, gobernu zentralaren hezkuntza arloko murrizketei eta politikei buruz (adibidez, LOMCE eta bekei buruzko ED).
Galdeketarako mahaiak jarriko dira ikastetxe eta unibertsitate ikastegi guztietako atarrietan; ikastetxe bakoitzeko guraso elkarteek, ikasleek eta irakasleek antolatuko dute mahaiak nola ezarri, elkarlanean. **Informazio ekintzak** egingo dira ikastetxeetan eta unibertsitate ikastegietan edo/eta auzoetan, herritarren galdeketa helburuari buruz. Erantzunak bildu, zenbatu eta zentralizatuko dira, gerora erabiltzeko.
- **Urriak 17an:** Herritarren galdeketa jasotako erantzunak **gobernuko presidenteari emango** zaizkio, Moncloako Jauregian. Prentsurrekoa, kontzentrazioak eta emaitzak emateari loturiko bestelako **sostengu ekintzak**, lurraldez lurralde.
- **Urriak 24, osteguna: Hezkuntzako greba orokorra**, irakaskuntza eta etapa guztietan, sektore guztiek deituta: ikastetxe eta unibertsitate ikastegietako ikasleak, familiak, irakasleak eta langileak.
- **Azaroaren 2tik 9ra: Hezkuntzako martxa berdeak**, Moncloako Jauregira. Estatuko toki guztietatik abiatuko dira martxak, benetako ibilbideak edo/eta ibilbide sinbolikoak egiteko, eskualde bakoitzaren aukeren arabera. Faseka eta etapaka egingo dira, eta elkarguneak izango dituzte bidean. Martxak Madrilera sartzeko autobideetatik sartuko dira, eta bat eginik iritsiko dira Moncloako Jauregira.
- **Azaroak 16, larunbata: Eskola Publikoa Guztiontzat II. Biltzarra**. 2014ko apirilean-maiatzean egingo den Biltzarrari buruzko eztabaida ekitaldia, haren ardatzak aukeratzeko, hezkuntza komunitatean hezkuntza eredu berri bat adosteari begira.

Deialdi horiek ikusirik, gure ustez, EHIGEk bere jarrera zehaztu beharko luke; izan ere, aurreko beste deialdi batzuekin gertatu bezala, litekeena da euskal gehiengo sindikalak (ELA-LAB-STEE) ez babestea mobilizazio horiek.

LOMCEn kontrako testua duen plastikoa bidaliko da berriro ere ikastetxeetara, aurreko ikasturtean bezala. Oraingoan 800 metro plastiko banatuko dira Gipuzkoan, 5/6 metro ikastetxe bakoitzerako.

4. 2013-2014 IKASTURTERAKO LAN PLANGINTZA

4.1. Eskualde bileren egutegia.

Iraileko bilerez gainera, 2013-2014 ikasturtean beste bi eskualde bilera egingo dira, urtarrilean (21 eta 29 artean) eta maiatzean (13 eta 21 artean).

4.2. Ohiko Batzar Orokorra:

Azaroaren 11an, larunbata, goizeko 10.30 (bigarren deialdian) Beasaingo BHIIn izango da (Loinazpe eraikuntzan).

BAIKARAREN Batzar Orokorreko gaietako bat Zuzendaritza Batzordearen berrikuntza izango da. Une honetan zenbait hutsune daude betetzeke, eta, hala, dei egiten diegu Zuzendaritza Batzordean ordezkariaren bat izateko interesa daukaten IGEEi Federazioarekin harremanetan jar daitezen.

5.- IGEEen Jardunbide Egokien III. Lehiaketan saritutako esperientziak aurkezteko IGEEen arteko topaketa

Lehiaketaren 3. edizioan, honako IGE hauek eskuratu dute saria:

- 1.SARIA (1.500 €). Kalamua Guraso Elkarte (Elgoibar LHI): “Urtantak. Poliki-poliki blai egiten”
- 2.SARIA (1.000 €). Kanpandegi Guraso Elkarte (Orixe ikastola, Donostia): “Denok goaz itsasontzi berean”
3. SARIA (500 €). Arantzabela Guraso Elkarte (Arantzabela LHI, Gasteiz)

SARI BEREZIA (1.000 €). IES Minas BHI: “Café con familias. Elkarbizitzarako elkagunea”

ACCESITA. Buruzpe Guraso Elkarte (Sasoeta-Zumaburu LHI, Lasarte-Oria): “Markak hausten, euskera indartzen”

ACCESITA. Zabalarra Guraso Elkarte (Zabalarra LHI, Durango): “Zabalarra: el corazón de una escuela pública”

ACCESITA. Basarte Guraso Elkarte (Zerain LHI): “Zeraingo haurren baratza ekologikoa”

ACCESITA. Allende Salazar Guraso Elkarte (Allende Salazar LHI, Gernika): “Elikadura osasuntsua gure eskolan”

ACCESITA. Mungia BHiko Guraso Elkarte (IES Mungia BHI): “Elurretara”

Une honetan, jardunaldia antolatzeko xehetasunak zehazten ari dira. Asmoa da azaroaren 16an egitea (larunbata), goizez, Gasteizen. Esperientzia sarituak aurkezteaz gainera, bestelako jardueraren bat antolatzeko asmoa ere badago (hitzaldia, eztabaida...), eskola jardunaldi eten/jarraituari buruz.

6.- Beste gai batzuk

6.1 Euskal Eskola Publikoaren jaiak

- Balmasedan ospatuko da Euskal Eskola Publikoaren 23. Jaia 2014ko ekainaren 1ean **“Gorantz goaz, go, go go!” lemapean**

- Eskola Txikietako festa Ekainaren 9an Bidania Goiatzen ospatuko da. Lehenengo Eskola Txikietako Festa Bidania-Goiatzen ospatu zen 1988an, eta **“Eskola Txikiak bizirik- Herri eta Auzo Txikiak bizirik”** leloa izan zuen. Orain, 27 urte geroago, berriro jaioterrira, Bidania-Goiazera, itzuliko da.